

# Kulturadunak



**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibartztea.eus](mailto:jakoba@bizibartztea.eus)

Kulturadunak lantzen du lurra. Lurra landu ez bagenu, ez genuke orain dugun kulturarik izango. Beste maila bateko hizkuntza izango genuke, eta idatzita-koaren arrastorik ere ez. Izan ere, kultura lurraren kultura da, latineko *cultūra*-tik omen dator. Horri tiraka *colere*-raino iritsi omen dira etimologiazaleak.

Kulturak, beraz, lurra lantzea, alor bat lantzea adierazten du. Hortik gero, hartuko duen esanahi mordoak: ikastea, zaintzea, garatzea, lantzea, aritzea, jardutea... Lurrekoak ere ez diren alor ugartan: zientzia, artea, hizkuntza, jakintzak, asmamena, adiskidetasuna...

Latineko *colere* hark, nonbait, "bizi" hitzaren adiera ere badu. Hortik omen dator koloniar edo kolono hitzaren esanahia: lur berri bat lantzen duena.

Geu ere gure lur honetan kokatu ziren lehen kolono haietatik gatoz. Aurrekoek naturak ematen zuena bildu eta baliatzen zuten. Pixkanaka lurra landu eta toki jakin bati lotuta bizitzera ohitu behar izan zuten. Eta lantzeko gero eta alor gehiagoren premia; berezko tokiko natura naturalari lurra kendu behar, irabazi egin behar... Duela milaka urteko lan haiek egiteko nola jokatzeko ote ziren? Pentsatzen da hasteko basoari su emango ziotela eta gero lurra lantzeari ekin. Euskal



Kanariar Uharteetako landaredia zeharo aldatu zen gizakiak bertara iritsitakoan.

SINC-CC BY

Herrian jardun haren arrastorik baden ez dakit. Kanarietan gertatua argitzen ari dira, eta hango berri badugu. Uharte haiek duela 2.300 urte inguru populatzen hasi zirela uste da, eta horrek arrastoen sailkapena eta ikerketa errazten du. Garaitsu hartan hasten da, agidanean, basoaren atzerakada eta nekazaritzaren hedapena. Arkeologoek topatzen dituzten arrastoei gero eta argiago adierazten omen dute.

Gero etorri zen, han bezala hemen, landare berriak sortzea. Naturalak diren aldaeretatik abiatuta zaintza tekniken bidezko sorkuntza. Landare berri horiek ez dira naturalak, ez daude naturan, geuk sortuak dira. Adibidez, Euskal Herrian ditugun ehunka eta ehunka sagarrak. Landutako horiei, nola ez, "kultibar" deitzen zaie, eta naturalei aldaera edo bariatate. Kulturaren, lantzearen kultibarrak. ■

## Futbol 7

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDE

MAIATZAK 28 / HENDAIA  
XIII. EDIZIOA

[futbol7.hendaia@gmail.com](mailto:futbol7.hendaia@gmail.com)

